


# Prentsa oharra

## Nota de prensa



## DONOSTIAKO DESFIBRILADORE GUZTIAK MAPA BATEAN BILDUTA

Donostiako Udalak, Osasun Publikoko Zerbitzuaren bidez, mapa bat argitaratu du Udalaren webgunean eta geoEuskadi aplikazioan. Mapa horretan, hiriak ekipamendu eta bulego publikoetan zein enpresa eta zentro pribatuetan dituen desfibriladore guztiak jasotzen dira.

«Balio handiko tresna da, eta oso interesgarria bihotz-biriketako geldialdi bat duen pertsona bati laguntzeko, larrialdiko osasun-laguntzak iristen diren bitartean artatu behar badugu», Marisol Garmendia Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotziak nabarmendu duenez.

Gaur egun, 211 desfibriladore inguru daude banatuta Donostia osoan, eta ia aparatu bat dago 1.000 biztanleko. Kopuru hori Estatuko batez bestekoaren hirukoitza da, baina oso urrun dago Alemania, Erresuma Batua edo Frantzia bezalako herrialdeen kopuruetatik.

KDA asko (kanpoko desfibriladore automatikoak) kirol edo kultura instalazioetan daude, ekipamenduaren funtzionamendu-ordutegiari lotuta. Beste batzuk merkataritza-guneetan, hoteletan eta kudeaketa pribatuko beste leku batzuetan daude.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



Nolanahi ere, bihotz-biriketako gorabeheren kasuistika kontuan hartuta —orain dela urte batzuk ondorioztatu zen % 1 bakarrik gertatzen direla gauez eta bide publikoan—, jotzen da ez dela presakoa horrelako aparatuek bide publikoan jartzea gauez erabiltzeko, desfibriladoreak egunean zehar toki publiko edo pribatuetan erabil daitezkeen ordutegitik kanpo.

Nabarmendu beharreko beste datu bat da bihotz-biriketako geldialdien % 80 inguru etxean edo bide publikoan izaten direla, eta bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) kasuen % 25-i aplikatzen zaiela, gehienez. Horregatik da garrantzitsua aparatu horien erabilera gehiago zabaltzea, gaixoaren biziraupena ahalbidetzeko.

### **IKASLEEI BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEA APLIKATZEN IRAKASTEKO SAIOAK**

Urtero bezala, Donostiako Udalak, Osasun Publikoko Zerbitzuaren bidez eta Gurutze Gorriarekin eta DYArekin elkarlanean, hiriko DBHko 4. mailako ikasleentzako saio batzuk antolatu ditu. Helburua da ikasleek jakitea zer den bihotz-biriketako geldialdia, nola jokatu larrialdi bati aurre egin behar izanez gero, eta, osasun-larrialdiko zerbitzuak iritsi arte, azkar esku hartzearen garrantziaz ohartaraztea.

Martxora arte egingo den edizio honetan, parte hartzen duten ikasleek larrialdi bati aurre egiteko behar diren prestakuntza eta azalpen guztiak jasoko dituzte.

2021-2022 ikasturtean informazio-saioak eman zitzaizkien hiriko 24 ikastetxetako 63 ikasle-talderi, eta 1.440 ikaslek hartu zuten parte.

Guztiei dokumentu bat eman zitzaien, ikastaroaren balorazioa egiteko, eta jasotako erantzunak esanguratsuak izan dira. % 90entzat baino gehiagorentzat, balorazioa positiboa da: edukiagatik, iraupenagatik, erabilitako metodologiagatik eta ikastaroaren erabilgarritasunagatik. Bestalde, ikasleek esan dutenez, ikastaroak sortutako espektatibak bete ditu. Balio handia eman diote panpinekin egiten den ariketa praktikoari; horrela, ikasten dute zein diren bizkortze-teknikak eta nola aplikatzen diren.

### **MAPAREN KOKAPENA**

<https://www.donostia.eus/ataria/es/web/osasun-publikoa/cursos-reanimacion-cardiovascular>